



BERDINTASUN ZERBITZUKO LAN MAHAIAREN BARNE ARAUBIDEAREN ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA.

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO EDIKTUA

Oltza Zendeako Udalak Berdintasun Zerbitzuko barne araubidea eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza onetsi nahi du.

Herritarrek erregelamendu mailako arauak egiteko prozeduran parte hartuko dutela bermatzeko, eta udal ordenantza egin aurretik, Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenari buruzko urriaren 1eko 39/2015 (APAPE) Legearen 133. artikuluan xedatutakoa betez, alde aurreko kontsulta publikoa egin nahi da, herritarrek eragina izan dezaketen erakunde garrantzitsuenek hainbat alderdiri buruz duten iritzia jasotzeko; esate baterako, ekimenarekin konpondu nahi diren arazoei buruz, horiek onartzeko beharrari eta aukerari buruz, arauaren helburuei buruz eta erregulazio eta erregulazio gabeko konponbide alternatiboei buruz.

Horrenbestez, Berdintasunerako Zerbitzuko Lan Mahaiaren barne araubidea eta funtzionamendua arautzen dituen udal ordenantza prestatu aurretik, jendaurrean egonen da honako hau:

MEMORIA

a) Aurrekariak:

Oltza Zendeako Udalak lan ibilbide zabala du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean, esparru horretan dagoen konpromiso politikoaren ondorioz, eta, aldi berean, handitzen ari den gizarte eskariari erantzuten dio.

Udalerrri txiki batean egon daitezkeen zailtasunak gorabehera, konpromiso politiko eta teknikoari esker, pixkanaka berdintasunaren aldeko eta berdintasun erreala lortzeko neurriak ezartzearen aldeko urratsak eman dira.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 12. artikuluan jasotzen denez, toki entitateek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa integratuko dute beren eskumenak gauzatzean, eta, horretarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari lagunduko diote.



Lehentasun bat da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa lortzeko, toki administrazioarekin batera genero berdintasunerako politikak bultzatzeko, eta beharrezkoa da modu egituratu, koordinatu eta sistematikoan lan egitea, lurralde errealtate desberdinen behar eta berezitasunei erantzuteko.

Hori dela eta, 2022ko urrian, Oltza Zendea (2022-09-01), Beraskoain (2022-09-2022), Bidaurreta (2022-08-24), Etxauri (2022-09-28) eta Ollarango (2023-09-29) udalbatzek Berdintasun Zerbitzua emateari buruz hartutako erabakiaren bidez, Berdintasun Zerbitzua Oltza Zendeako Udalak kontratatuko duen berdintasunerako agente baten bidez ematea erabaki zen, udal bakoitzak ezartzen dituen programa eta jarraibideen arabera eta Nafarroako Gobernuko Berdintasunerako Nafarroako Institutuak ezartzen duenaren arabera. Administrazioen arteko hitzarmena 2022ko urriaren 13an sinatu zen (228. NAO, 2022ko azaroaren 17koa).

Oltza Zendeako Udalak (2023-02-23), Beraskoingo Udalak (2023-02-23), Ollarango Udalak (2023-02-21), Etxauriko Udalak (2023-02-15) eta Bidaurretako Udalak (2023-2023) hartutako erabakien bidez, aipatutako Berdintasunaren Mahaia sortzea erabaki zen.

Berdintasun Zerbitzuko Lan Mahaiaren funtzionamendua arautzeko, Lan Mahai honen egitura, helburuak, funtzionamendu arauak eta beste alderdi batzuk zehaztu nahi dira, Berdintasun Zerbitzuko Lan Mahaiaren barne araubidea eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza honekin.

b) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak:

Berdintasunerako Lan Mahaiaren funtzionamendua arautu eta kontrolatzea, eta hitzarmenaren betearazpenaren jarraipena, zaintza eta kontrola eta Lan Mahai hori sinatu duten entitateek hartutako konpromisoak bermatzea.

c) Ordezko irtenbideak, erregulatzailleak eta ez-erregulatzailleak:

Hasiera batean, ez da halakorik aurreikusten, parte hartzeko prozesu honetan jasotzen diren ekarpenen kalterik gabe. Ekarpenik badago, horiek aztertuko dira.

d) Onartzeko beharra eta aukera:

Gaur egun ez dago Berdintasunerako Lan Mahairik, ez eta haren funtzionamendua arautzen duen ordenantzarik ere, eta horrek zaildu egiten du Administrazioen arteko Hitzarmena sinatu duten udalerrien errealtateari eta ezaugarriei araudia betetzea.



Horregatik guztiagatik, egokitzen jotzen da testu arauemaile bat egitea, Lan Mahai honen egitura, helburuak, funtzionamendu araudia eta beste alderdi batzuk zehazteko.

e) Ordenantzaren helburuak:

Berdintasun politikei garrantzi handia ematea tokiko politiken esparru orokorrean, eta tresnak sortzea genero ikuspegia txertatzeko eta, hala, berdintasunerako politika publikoen garapenean aurrera egiteko, eta hitzarmenaren gauzatzearen jarraipena, zaintza eta kontrola ziurtatzeko, bai eta Berdintasun Zerbitzua emateko Administrazioen arteko Hitzarmenean hartutako konpromisoak ere.

Hamabost eguneko epean (83.2 APAPE) Ediktu hau Udalaren egoitza elektronikoan argitaratu ondoren, herritarrek, erakundeek eta elkarteek beren iritzia helaraz ditzakete helbide elektronikoa honen bidez: berdintasun_teknikaria@ayuntamientoolza.com.

Oltza Zendea, Oltza Zendea, elektronikoki sinatzen den egunean

Alkatea

José María Cuende Vallejo